

## 5.OINARRIZKO BALIABIDEAK

Enpresa ireki ahal izateko **30.000€ behar ditugu**, horretarako;

**Kapitala** → Bakoitzak **2500€** jarriko ditugu (**guztira 10000€**).

**Dirulaguntzak** → Adikzioen arloan arriskuak eta kalteak aurreikusteko, murrizteko eta jokabide osasungarriak sustatzeko proiektuak egiteko dauden laguntzak 2024ean: Diru laguntza hauek dauzkagu gure produktuak jokabide osasungarriak sustatzen dituelako. Adibidez, kirola egin eta hau egiterakoan istripu gutxiago edukitzea. Gainera zerbitzu bat ere eskaintzen dugu, noizbehinka hitzaldiak ematen ditugu errepidean erabili behar diren segurtasun neurri edota drogen eta alkoholaren erabilpen desegokiaz. Honen truke **gobernuak 10.000€-ko dirulaguntza** emango digu.

**Crowdfunding** → Kickstarter edo Indiegogo bezalako plataformen bidez, jendeak gure ideia ekonomikoki lagundu dezake. Hau da plataforma hauetan jendeak bere produktua argitaratzen du eta behar duen diru kopurua jartzen du. Jendeari ideia gustatzen bazaio, diru donazioak egin ditzazke ideia egi bihurtzeko. Epe bat egoten da dirua biltzeko eta nahikoa biltzen ez bada, ez dugu dirurik jasoko bertatik. Gure kasuan **10.000€ eskatuko ditugu**.

**Inbertsoreak** → Teknologia enpresetan inbertitzen dute trukean enpresaren zati bat eskuratuz. Abantaila nagusia kapital bizkorra eta aholkularitza espezializatua lortzen dela da. Desabantaila aldiz, enpresaren kontrola eta jabetza partekatzea da. Gure kasuan **20.000€ emango dizkigu**.

**Bankua/Mailegua** → Kreditu-lerroak edo maileguak eskaintzen dituzte, enpresaren jabetza osoa mantentzeko aukera emanez. Hala ere, interesak ordaindu behar dira eta, baldintzak betetzen ez badira, aktiboak galtzeko arriskua dago.